

II-ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Herritarrek parte hartzeko plana, Iruraiz-Gaunako udalerriko hiri antolamenduko plan orokorraren berrikuspenaren barruan

Iruraiz-Gaunako Udalaren Osoko Bilkurak, 2021eko apirilaren 6an egindako ohiko bilkuran, herritarrek parte hartzeko plana onartu du, hiri antolamenduko planaren berrikuspenaren barruan; hala, erabakiaren bigarren atalean, herritarrek parte hartzeko programaren laburpena ALHAOn eta udalaren webgunean argitaratzeko agindua eman zen.

Herritarrek parte hartzeko programa

1. Herritarrek parte hartzeko planaren helburuak Iruraiz-Gaunako HAPOren idazketaren baitan

Parte hartzeko plan honen helburu nagusiak hiru dira:

1. Hiri antolamenduko planak prestatu eta berrikusteko jardueretan eta ingurumen ebaluazio estrategikoko prozeduretan, informazio publikoaren eta herritarren parte hartzearen arloan indarrean dagoen legerian ezarritako irizpideak eta helburuak betetzea.

2. Prozesuaren aldi guztiak eta sortzen den dokumentazioa gardentasunez kudeatzea, honela:

* Informazioa egiazki eta etengabeko entzuketa landuta eman behar da.

* Parte hartzeko eta jendaurrean jartzeko prozesuaren deialdi guztien eta mugarrien berri eman behar da, horien zabalkundea egin behar da eta herritar guztientzat eskuragarri jarri behar dira, jokoaren arauak eta dauden mugak argi gera daitezen, bereziki, zenbait alderditan: jarduketa eremuak, indarreko legeria, alegazioak egitekoaldiak eta epeak eta HAPO bera idazteko erantzunak.

* HAPOren ondorioei eta HAPO idazteko prozesuaren aldiaren barruan egingo diren informazio- eta proposamen-bileretan parte hartzeko garrantziari buruzko informazio nahikoa zabaldu behar da, udalerriko bizilagunak aipatutako bileretan parte hartzera gogatzeko eta prozesua sustatzeko. Herritarrek parte hartzeko prozesuan erabakigarriak diren gaiak eta erabakigarriak ez direnak nabarmenduta.

* Hartutako erabakiak modu arrazoituan helarazi behar zaizkie herritarrei, egindako txostenetara zuzenean sartzeko hainbat bide eskainiz (papera, posta elektronikoa, webgunea, sare sozialak...).

3. Informazio publikoa emateko eta herritarrek edo auzotarrek parte hartzeko uneak (noiz), moduak (nola) eta bitartekoak edo kanalak (non) ezartzea, HAPOren idazketa aldietara eta izapidetze prozedura administratiboetara egokituta:

* Hirigintzako informazioaren eta HAPOren aurrerapenaren aldiak –aldi horietan, garrantzitsua da partaidetzaz lan egitea, garrantzi handieneko ekarpenak eta iradokizunak egin eta jasotzeko– eta erabakiak hartzen direneko ondoko aldiak bereizi behar dira.

* Aldi bakoitzaren denborak eta epeak zehaztu behar dira.

* Prozesuaren aldi bakoitzean parte hartzea eta informazio publikoa errazteko eta bultzatzeko tresna egokienak erabili behar dira.* Hirigintza batzordea sortu behar da, HAPOren izapidetze prozesuaren jarraipena egiteko eta parte hartzeko prozesuaren balorazioa egiteko, parte hartzea osokoa eta gozkoa izan dadin.

2. Informazio, hedapen eta zabalkunde bideak. Herritarrek parte hartzeko bitartekoak eta moduak

Iruraiz-Gaunari dagokionez, badira 11 herri, zeinek bere administrazio batzarra eta kontzeju ireki dituela, parte hartzeko modu eta informazio nahiz hedapen bitarteko gisa. Udalak, berriz, webgunea, aldizkaria (Luzkando), WhatsApp, helbide elektronikoen zerrendak eta Aziluko gizarte etxea (udalaren egoitza) ditu. Horietan guztietan, informazio bilerak eta parte hartzeko bilerak, tailerrak edo beharrezko lantaldeak egin daitezke.

Herritarrek parte hartzeko programa honek azaldutako antolamendua eta egun dauden baliabideak baliatu nahi ditu herritarrek eta udalerriko eragile sozioekonomikoek Plan Orokorra idazteko prozesuan egiten dituzten ekarpenak bideratzeko.

Hauexek dira erabili nahi ditugun hedabideak plan orokorraren idazketari lotutako informazio publikoa zabaldu eta herritarren parte hartzea kudeatzeko:

a) Udalaren webgunea: <http://www.iruraiz-gauna.com>. Bertan, HAPOn informazio guztia, deskarga daitekeen dokumentazioa, parte hartzeko bileren deialdiak, plan idazten duten taldekideen telefonoak eta helbide elektronikoak eta abar biltzen dituen orri, gune edo gordailu bat egokituko da.

b) Sare sozialak, WhatsApp eta Facebook. WhatsApp aplikazioa erabiliko da, oso hedatuta dagoelako eta berehalakoa delako, eta Facebookeko profila sortuko da.

c) Mezu elektronikoak bidaltzeko posta zerrenda.

d) Luzkando aldizkaria. HAPOn aldien eta aurrerapenaren inguruko edukiak, artikulak eta zabalkundea emateko erabiliko da, eta, bide batez, herritarrek sentsibilizatzeko eta parte hartzea sustatzeko baliatuko da.

e) Plana idazteko aldi bakoitzari egokitutako liburuxkak eta informazio diptikoak.

f) Kartelak, informazio bileren eta parte hartzeko tailerren deialdia jasota.

g) Administrazio batzarrak eta kontzejuak, herrietako bizilagunen WhatsApp helbideak eta gizarte etxeak, informazioa zabaltzeko eta parte hartzeko bide eta lekutzat baliaturik.

h) Informazio eta zabalkunde bilerak; bi motatako informazio bilerak egingo dira: HAPOn aldi bakoitzaren edukiari buruzko zabalkunde eta sentsibilizazio bilerak.

i) Parte hartzeko bilerak edo tailerrak. Parte hartzeko tailer gisako bilerak antolatuko dira, herritarren beharrak diagnostikatzen eta identifikatzen laguntzeko, eta HAPOn aurrerapenean jaso eta xteratu beharreko ideiak, iradokizunak eta proposamenak jasotzeko.

j) Herritarrentzako galdetegia.

k) Elkarrizketak eta arreta pertsonalizatua. Telefonoz, PGOUIRURAIZGAUNA@gmail.com posta elektronikoa erabiliz edo aurrez aurreko banakako elkarrizketen bidez.

2.1. Udalaren webgunea, sare sozialak eta posta elektronikoaren bananketa.

Udalaren kanal hauek baliatuz:

a) www.iruraiz-gauna.com webgunea izango da udalerriko biztanleekin komunikatzeko bide nagusia, baina ez bakarra. Herritarrek parte hartzeko programak kanal hau erabiliko du:

* Bileren deialdiak egiteko. Deitutako bileren egunen, daten, helburuen eta edukien berri emango da.

* HAPO idazteko aldi guztiei buruzko informazio dokumentazio guztia emateko eta zabaltzeko: hirigintza informazioaren aldiaren diagnostikoak, aurretiazko azterlanak, parte hartzeko bileren laburpenak, ondorioak eta proposamenak, aurrerapen dokumentua, HAPOn hasierako onarpenaren dokumentua, alegazioen ebazpenari buruzko txosten arrazoitua eta HAPOn testu bateginaren dokumentua, behin betiko onetsi ondotik.

PDF formatuan deskarga daitezkeen dokumentuak izango dira, eta HAPO idazteko prozesuak irauten duen bitartean, webgunearen orri nagusian (home delakoan) egokituko den gune iraunkor batean egongo dira eskuragarri.

b) Sare sozialak (WhatsApp, Facebook, eta posta elektronikoen zerrendak). Berehalako posta eta komunikazio tresna horiek bilerak egiteko deialdiak eta gogorarazteko mezuak bidaltzeko erabiliko dira. Deitutako bileren egunen, daten, helburuen eta edukien berri emango da; udalaren webgunetik deskarga daitezkeen dokumentuetarako estekak bidaliko dira.

2.2. Luzkando aldizkaria.

Urtarrilean, apirilean, uztailean eta urrian argitaratzen den Luzkando aldizkarian, HAPO baten eskema duen artikulua bat idatziko da, eta beste bat herritarren parte hartzea bultzatzeko, egin daitezkeen ekarpenen inguruko adibideak emanda. Horrez gain, hirigintzako informazioaren aldiaren lan eta ondorioen aurrerapenari, aurretiazko azterlan eta diagnostikoei eta planaren aurrerapenaren berri emango da, planaren aurrerapenaren inguruko artikulua kaleratuta.

2.3. Liburuxkak eta kartelak.

Liburuxkak eta kartelak diseinatu eta udalaren egoitzan eta gizarte etxeetan jarriko dira. Gainera, udalerriko etxe guztietako postontzietan ere banatuko dira:

* Liburuxkei dagokienez, biorriko edo hiruorriko formatua duten liburuxka bat baino gehiago diseinatuko dira planaren aldietan: sentsibilizazio eta zabalkundekoak planaren hasierako aldiari, eta informazioa ematekoak aurrerapen aldiari, hasierako onespenean eta abarretan.

* Kartelei dagokienez, DIN A3 tamainan diseinatuko dira, informazio bileren, parte hartzeko tailerren eta planaren aldiako dokumentuak jendaurrean aurkezteko antolatzen diren bileren deialdiaren berri emateko: hirigintza informazioa eta aurretiazko azterlanak, aurrerapena, hasierako onarpena.

2.4. Administrazio batzarrak, kontzejuak eta gizarte etxeak.

Herrietako administrazio batzarrak eta haietako errejidore-batzarburuak eragiletzat hartuko dira parte hartzea bideratzeko, auzotarren eta herriaren beharren bozeramaile diren aldetik. Administrazio batzarrek bileren deialdiak eta HAPOren dokumentazioa nahiz eta informazioa eskuratzeko estekak helaraziko dituzte, eta gizarte etxeekin koordinatuko dira, bilerak haietan egiteko eta bileretarako deialdien kartelak jartzeko.

Gure proposamena hau da: administrazio batzarretako errejidoreek idaztetaldearekin lotutako eragile gisa jardutea. Horrela, prozesuaren aldi guztietan, adieraziko digute noiz eta zein kasutan beharrezkoa den bilerarik egitea auzo batzarrekin, herri bakoitzaren ekarpenak, iradokizunak eta proposamenak jakinarazteko edo jasotzeko.

2.5. Informazio bilerak eta parte hartzeko tailerrak.

Informazio bilerak eta parte hartzeko tailerrak antolatzea proposatzen dugu, herritarrek, gizarte eta kultura eragileek (elkarteet eta abarrek) eta eragile sozioekonomikoek (enpresek, profesionalek eta barrek) informazioa jaso dezaten eta ekarpenak egin ditzaten idazketa aldi guztietan. Hiru bilera mota egingo dira:

* HAPO delakoa zer den jakiteko informazio eta zabalkunde bilerak, aldiak, aurretiazko azterlanak, aurrerapena, araudiak, izapidetze epeak, araudia aintzat hartuta, informazio publikoa noiz eman behar den eta kontsultak egiteko epea noiz ireki, ekarpenak edo alegazioak eta horiei erantzuteko prozesuak, bai eta onartzeko aldiak ere. Bilera horiek guztiak administrazio batzarretako errejidore-batzarburuekin, kideekin eta planeko eta korporazioko mahaiko kideekin, herritarrekin eta eragile soziokultural eta sozioekonomikoekin egingo dira (irekiak baitira parte hartu nahi duten pertsona eta eragile guztientzat), bai eta 11 herrietako kontzejuekin ere, 4 gunetan bilduta.* Parte hartzeko tailerrak, interesdun guztientzat:

1. Udalerraren diagnostikoa egiteko: diagnostikoa aberasteko indarguneak eta ahulguneak eta ondorio sozioekonomikoak.

2. Ekipamendu, etxebizitza, zerbitzu, mugikortasun eta abarren beharrei buruzko ideiak, iradokizunak eta proposamenak sortu eta jasotzeko.3. Aurretiazko azterlanetako ondorioen ziozko proposamenak jasotzeko, planaren aurrerapen proposamenean txerta daitezten.* Informazio publikoa emateko eta iritziak trukatzeko bilera, interesa duten pertsona guztientzat irekita. Gutzienez, ondoko alderdiak jorratuko dira: aurreko azterlanetako ondorioei buruzko informazio bilera: ingurumena, paisaia, gizartea eta ekonomia, planaren eraginak eta HAPOk aurrera egiteko proposatzen ari diren ari diren estrategienak. Horiek guztiak, behintzat, iritziak trukatzeko, zalantzak argitzeko eta proposamenak aztertzeko balio behar dute, eta, gainera, aurrerapenaren inguruko informazioa azalpena jendaurrean emateko lehen bilera antolatzeko. Une horretan, herritar, elkarte eta erakunde interesdunek iradokizunak eta aukerak aurkez ditzakete plan orokorrak gerora garatu behar dituen antolamendu irizpide, helburu, aukera eta proposamen orokorrak jasotzen dituen agirian txertatzeko, bai eta agiri horri lotutako ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketan aintzat hartzeko ere. Jendaurreko lehen aurkezpen horretan, dokumentuak ondoko udalerrietako udalei, udalerriko administrazio batzarrei eta EAeko ingurumen organoari bidaliko zaizkie.

* Hasierako onespeneren dokumentua bigarrenez jendaurrean jartzeari buruzko informazio eta azalpen bilera. Plangintzako irtenbideen behin betiko gizarte azterketa egingo da, eta alegazioak egiteko aldi gautatuko da. Interesdunei irekita egoteaz gain, kontsultak egingo zaizkie sektore eskumenak dituzten administrazio publikoei eta udalerriko administrazio batzarrei, gutzienez, 45 eguneko epea emanda.

2.6. Udalerrri osoko biztanleentzako galdetegia.Hirigintzako informazioa emateko aldi, apirilaren erdialdetik maiatzaren erdialdera bitartean aurreikusi den analisi eta diagnostiko sozioekonomikoaren esparruan, udalerriko helduentzako galdetegia prestatu eta bidaliko zaie, paperean edo linean erantzun dezaten.

Galdetegi hori ele bietako izango da eta etxe guztietako postontzietan banatuko da, gutzienez, etxebizitzako pertsona heldu nagusi batek erantzun dezan, baina etxebizitzako gazteentzako (16-30 urte) galderak ere izango ditu.

2.7. Herritar eta biztanleentzako banako arreta (aurretiazko hitzordua).

HAPOren aurrerapen dokumentuari nahiz hasierako onespeneri buruzko jendaurreko azalpenak eman ondotik, perte hartze publikoa honako hauen bidez bideratzen da: aurrerapenaren inguruan egindako "iradokizunak" eta hasierako onespeneren inguruan egindako "alegazioak". Edozein pertsonak, auzotarrek, pertsona juridikok edo erakundeek esku har dezake parte hartzeko prozesu horretan.

Banako arreta emango zaio iradokizunik edo alegaziorik duen pertsona edo erakunde bakoitzari. Iradokizun-alegazioak honako hauen bidez egingo dira:

- Idazte taldearen banako arreta, aurrez aurrekoa, hitzordua eskatuta.
- Honako kanal edo bitarteko hauen bidez:
- Idazte taldearekin, telefono bidez.
- Posta elektronikoko bidez, PGOUIRURAIZGAUNA@gmail.com.
- Idazte taldeko kideekin, aurrez aurreko saioetan.

Funtsean, HAPOren arkitekto koordinatzaileak emango du laguntza. Eta idazte taldeko beste kide batzuek (hirigintzako abokatua, soziologoa, IAE, mugikortasun, zarata mapa eta abarren arduradunak...), gaiak hala eskatzen duenean, kontsultei erantzutea balioetsiko da.

Epea, aldia: jendaurrejartzeko aldia irekitzen den lehen egunetik aurrera, hala nahi duten herritarrek eta erakundeek hitzordua eskatu ahal izango dute idazte taldearekin, udalaren bidez. Udalak hitzordu pribatua emango die horiei guztiei, data eta ordua adierazita, idazte taldeak eta udalak ezartzen duten egutegian oinarrituta, behar besteko denboraz (behar beste egun emango da).

Prozesu hori hasita, jendaurreko aldi bakoitzaren amaierara arte iraungo du. Proposamen honen bidez, batetik, eskatzen diren kontsultak, iradokizunak eta informazio eskeak pertsonalizatu nahi dira. Bestetik, parte hartzeko prozesuari zentzuzko irizpidea ematea lortuko da, herritarren pilaketak, itxaronaldiak eta deserosotasunak saihestuz.

Idazte taldeak honako kanal/bitarteko hauek jarriko ditu planaren mahaiaren, udaleko eta koadrilako teknikarien eta herritarren eskura, idazte taldeko kideekiko komunikazioa errazteko:

a) Helbide elektronikoa bat: PGOUIRURAIZGAUNA@gmail.com, iradokizunak eta kontsultak jasotzeko eta bertatik erantzuteko.

b) Berariazko WhatsApp kontu, aurrekoaren erabilera berdina duena.

Proposatu den jendaurreko informazioaren eta herritarren parte hartzearen programak ekintza multzo bat dakar:

Jendaurreko informazio eta aurkezpenari dagokionez, ekintzak bost alditan antolatuko dira:

1. Aurretzeko azterketak.
2. Aurrerapena eta aurrerapena jendaurrean jartzea.
3. HAPOn dokumentua hasieran onartzea eta jendaurrean jartzea.
4. Behin-behinean onartzea.
5. Behin betiko onartzea.

aldi berean, honako bitarteko edo kanal hauek baliatuko dira:

a. Webgunea, sare sozialak, posta elektronikoen zerrendak eta inprimatutako bitartekoak: aldizkaria, liburuxkak eta kartelak.

b. Informazio eta zabalkunde bilerak.

c. Parte hartzeko tailerrak.

d. Informazioa emateko eta jendaurrean jartzeko bilera eta saio irekiak.

e. Proposamen eta alegazioen egileei banako arreta ematea.

3. Jendaurreko informazioa emateko eta herritarrek parte hartzeko programaren ekintzak

Atal honetan, HAPOn aldi bakoitzean aipatutako ekintzen laburpena egingo dugu:

3.1. Hasiera eta hedapen fasea.

HAPOn zereginak hasteko aldi egingo dira hedapen eta sentsibilizazio ekintza guztiak. Honako hauek aurreikusi dira:

Alde batetik, informazio eta hedapen materialak eta dokumentuak egitea, zehazki:

I. HAPO baten edukiari, lan aldiei eta abarri buruzko informazioa eta zabalkundea emateko dokumentua.

II. Artikuluak Luzkando aldizkarian: HAPOrri eta planaren aldiei eta herritarren parte hartzeari buruzko bi artikulu.

III. Parte hartzea sustatzeko sentsibilizazio liburuxka.

Beste alde batetik, ondoko deialdiak:

I. (1.a) Informazio eta zabalkunde bilera, administrazio batzarretako eta korporazioko kideekin.

II. (2.) Informazio eta zabalkunde bilera, herritar guztiei, eta eragile soziokultural nahiz sozioekonomikoei irekia.

III. (3.a) Informazio eta zabalkunde bilera, Arrieta, Ezkerkotxa eta Gazeoko bizilagunekin.

IV. (4.a) Informazio eta zabalkunde bilera, Azilu, Gauna eta Jauregiko bizilagunekin.

V. (5.a) Informazio eta zabalkunde bilera, Langarika, Alaitza eta Gereñuko bizilagunekin.

VI. (6.a) Informazio eta zabalkunde bilera, Trokoniz eta Erentxungo bizilagunekin.

3.2. Hirigintzako informazioaren aldia eta aurretiazko azterlanak.

Hirigintzako informazioaren aldian, aldez aurreko azterlanak egingo dira, eta horietan parte hartzeko bidea izango dute, beheko alderdi hauei buruzko elkarrizketen, eta parte hartzeko tailerren edo laneko bilera sektorial edo tematikoen bidez. Jorratu beharreko alderdiok aurrerago zehaztuko dira:

1. Natura eta kultura ondarea. Paisaia.
2. Herritarrak eta bizilekua.
3. Hiriko ekipamenduak eta zuzkidurak.
4. Jarduera ekonomikoa.
5. Mugikortasuna eta irisgarritasuna.

Adituekin egingo diren elkarrizketetan, gai bakoitzari lotutako teknikari eta profesional adituek parte hartuko dute, betiere, udalerriko, kuadrillako eta beharrezkoak diren udalerritik kanpoko erakunde eta entitateetako ordezkariak egon daitezela ahaleginduta. Elkarrizketetan, gai bakoitzaren inguruko arazo nabarmenenak, irismena eta hobetzeko edo konpontzeko aukerak aztertu eta eztabaidatuko dituzte.

Azterketa eta diagnostiko soziologiko eta sozioekonomikoaren jardueren barruan.

Aurretiazko azterketaren eta egoeraren diagnostikoaren aldi horretan, herritarrek parte hartzeko modua izango dute, eta, horrela, gutxienez, honako ekimen hauen deialdiak egin eta bilerak egingo dira:

I. Udalerraren diagnostikoa egiteko tailer parte hartzailea: diagnostikoa eta ondorio sozioekonomikoak elikatzeko indarguneak eta ahulguneak. Bizilagunak, gizarte eta ekonomia eragileak bilera batera deituko dira, honako gai hauei buruzko iritzia, eskaerak eta iradokizunak jasotzeko:

i. Herritarrek udalerrian eta bertako biztanleguneetan arlo sozioekonomiko, kultural eta zuzkidurei lotutakoetan antzematen dituzten arazoak/beharrak identifikatzea.

ii. Eta adostasuna lortzea, HAPOren idazketan, alderdi horiei buruz zer jaso nahi luketenaren inguruan.

II. Ekipamendu, etxebizitza, zerbitzu, mugikortasun eta abarren beharrei buruzko ideiak, iradokizunak eta proposamenak sortu eta jasotzeko tailer parte hartzailea.

Aldi horretan galdetegia bidali eta abian jarriko da, herritarren iritzia eta proposamenak jasotzeko eta parte hartzeko beste bide bat den aldetik.

Aurretiazko azterlan horiek amaitu ondoren, parte hartzeko programak aurreikusita dauka aurretiazko azterlanen ondorioak jendaurrean zabaltzea, herritarrek, oro har, ondorioei heltzeko aukera izan dezaten.

1. aldi horretan parte hartzeko programaren ekintzak azterlanak eta diagnostikoak amaitu ondoren abiatuko dira:

I. Ondorioen dokumentua aurkezteko eta hedatzeko bi informazio bilera.

i. Emaitei eta ondorioei buruzko informazioa emateko auzo bilera:

ii. Bilera Kuadrillako hirigintzako batzordearekin, udalbatzarekin eta hirigintzako arduradunekin.

Bilera horietan, aurretiazko azterlanen ondorioak aurkeztuko dira: ingurumen, paisaia, gizarte eta ekonomia arlokoak, planaren eraginei buruzkoak eta HAPOk aurrera egiteko aztertzen ari diren estrategiei buruzkoak, iritzia trukatzeko, zalantzak argitzeko eta berresteko balio dezaten.

II. Aurretiazko azterlanetako ondorioen ziozko proposamenak jasotzeko tailer parte hartzailea, planaren aurrerapen proposamenean txerta daitezten.

III. Ondorioen dokumentua web orrian zabaltzea, deskargatzeko aukera emanda.

3.3. Aurrerapenaren dokumentua eta aurrerapena jendaurrean jartzea.

Aurrerapenaren aldian, plan orokorra zehaztuko duten ildo nagusiak osatuko dira. Horren helburua antolamenduaren irizpide, helburu, aukera eta proposamen orokorrak ezartzea da, HAPOren dokumentua idazteko jarraibide bilakatuko baitira.

Funtsezko garrantzia duen aldia da, berrikusitako plan orokorretik aterako den hirigintza antolamenduari forma emango diona –ez behin betikoa–. Aldi horren emaitza hainbat aukera eskaintzen dituen aurrerapen bat izan daiteke, antolamenduaren definizio zehatza hasierako onarpenaren aldian prest uzteko.

Hala izan daitekeenez, komenigarria da aurrerapenak nahikoa definitutako planaren proposamena aurkeztea, hurrengo aldian prozesua gelditu dezakeen eztabaidarik ez sortzeko.

Horregatik, aldi horretan, komeni da eztabaida piztea, iritzi desberdinei aurre egiteko eta ahalik eta hirigintza eredurik adostuena lortzen laguntzeko. Garrantzitsua da aurrerapen aldiaren hasiera-hasieratik behoko alderdiak ondo mugatuta geratzea:

I. Udaleko agintariek ezarritako jarraibide politikoak, hots, eztabaidatu ezin direnak.

II. Iruraiz-Gaunako hirigintza antolamendu berriak bete beharko dituen –eta, beraz, eztabaidatik kanpo geratzen diren– sektore antolamendutik eta udalaz gaindiko antolamendutik eratorritako baldintzak.

III. Idazte taldearen eta udal teknikarien irizpenari lotutako lurralde ereduaren gainerako gaiak eta alderdiak, eta, ondorioz, eztabaida publikoan jorratuko direnak, lurraldeari eta gizarteari dagokionez, balizko aukera guztien artean, konponbide onargarriena bilatzeko.

Alderdi horiek guztiak azpimarratuko dira hasiera aldiko zabalkunde bileretan.

3.4. Aurrerapenaren jendaurreko aldia.

Eztabaida publikoa eta herritarren parte hartzea hirugarren eremu horretan garatuko dira, eta eztabaida horren gainean antolatuko dira udalerriko hirigintza arazoaren izaera berresteko eta zehazten laguntzeko informazio eta parte hartzearen bideak, horiek konpontzeko hainbat aukera aztertu, aurrez aurre jarri eta, ahal izanez gero, adostu ahal izateko.

Aldi horretan, honako hauek jasoko dira:

1. Indarrean dagoen HAPO delakoa idazteko iradokizunak eta proposamenak jasotzeko prozesua, ondokoak biltzen dituen:

a. Indarrean dagoen HAPOren idazketari buruzko eztabaida irekitzea linean eta webgunean.

b. HAPO idazteko prozesua aurkeztea eta sortutako mahai/talde edo batzordeei proposamenak eskatzea.

2. Aurrerapena jendaurrean jartzea eta proposatutako aurrerapenari buruzko parte hartzea. Aurrerapena jendaurrean jarriko da, aurrerapena bera eta aukerak aurkeztuz eta eztabaidatuz sortutako mahai/talde edo batzordeetan, gutxienez, herritarrek parte hartzeko programaren ondoko ekintzak garatuta:

- Informazio-bilera bat egingo da herritarrei irekitako saio batean, plan orokorraren aurrerapena aurkezteko.

- Aurrerapenaren dokumentazioa webgunera igo eta lineako kanaletan aurkeztuko da.

- Aukeren eztabaida irekiko da, honela:

- Planak aurrera egiteko aldaketen iradokizunak edo proposamen berriak jasotzeko parte hartzeko tailerra.

- Lineako kanalak, webgunea.
- Eta banako arreta emateko ezarri diren kanalen bidez.

3.5. HAPOren dokumentua, hasieran onesteko eta jendaurrean jartzeko.

Laneko aldi honen ardatza plan orokorraren dokumentu osoa idaztea da, aurrerapenean proposatutako eredia oinarri hartuta, aurreko jendaurreko aldian eta erakundeen eta herritarren parte hartzearen izapidean onartutako aldaketa eta proposamenak txertaturik, udalak onartzen dituen irizpide eta helburuetan zehaztuta.

Jendearen berrespena lortzeko aldia baino, barneko lan aldia da; beraz, herritarrek parte hartzeko programaren ekintzek onartutako irizpide eta helburuak hedatzea izango dute xede, lurzorua legeak sustatzen duen gardentasun politikaren barruan:

- a) Udalak onartutako irizpide eta helburuen berri mahai/talde edo batzordeei ematea.
- b) Ez dago aurreikusita jendaurrean jartzetik.
- c) Udalak onetsitako irizpide eta helburuen berri ematea lineako kanaletan eta webguneetan.

3.6. Hasieran onetsitako HAPO jendaurrean jartzea.

Legeak araututako bigarren informazio publikoaren aldiak aurreko aldietan ateratako emaitzetan oinarriturik hartu diren plangintza irtenbideen behin betiko gizarte berrespen gisa balio du.

Aldi horretako parte hartze publikoaren ardatza izango da aurrerapenean finkatutako ildo nagusiak xehetasunez islatzeko moduari buruzko alegazioak egitea.

Hori dela eta, aldi horretan, herritarren parte hartzea bideratu behar da, alde batetik, HAPOren dokumentuaren edukiak hedatzera eta herritar guztiei azaltzera, guztiek uler dezaten zer irismen eta zer ondorio izango dituen dokumentuak udalerraren egoera fisikoan, eta, bestetik, erraztu eta bideratu egin behar da planaren alderdien gaineko alegazioak aurkeztea, baldin eta alderdi horiek kaltegarriak badira norberaren interesentzat edo, besterik gabe, desadostasuna adierazi nahi bada.

Hauexek dira 5. aldi honetako parte hartzeko programaren ekintzak:

- a) Onartutako plan orokorra prozesuan sortutako mahai, talde, batzar eta kontzeju eta batzordeei aurkezteko eta azaltzeko bilera irekiak egitea.
- b) Hasieran onetsitako HAPO jendaurrean jartzea.
- c) Plan orokorra aurkeztea eta azaltzea, eta alegazioak bideratzea lineako kanaletan, webgunean eta, udaletxean bertan, aurrez aurre.

3.7. Behin-behinean onesteko agiria.

Udalak, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, behin-behinean onartuko du plan orokorra, aldaketa egokiak eginda, eta onespren erabakiaren eduki osoa udalerriko administrazio batzarrei bidaliko die. Era berean, behin betiko txostena egiteko eskatuko zaio autonomia erkidegoko ingurumen organoari.

Funtsean, administrazio aldia da, herritarrek parte hartzeko aukera txikia ematen duena.

Aldi horretako ekintzak informazioa ematekoak eta behin-behinean onartutako plan orokorraren dokumentua hedatzekoak baino ez dira:

- a) Ez dago aurreikusita mahaiek, taldeek edo batzordeek parte hartzerik.
- b) Ez dago aurreikusita jendaurrean jartzetik.
- c) Izapidetzearen egoerari buruzko informazioa lineako kanaletan eta webgunean emango da.

3.8. Behin betiko onartzea.

Izapidetzearen eta barneko lanaren azken aldian, ingurumen eraginaren behin betiko txostena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso ondoren, plan orokorraren dokumentuari dagozkion aldaketak egingo dira izapide horien ondorioz, eta plan orokorra eta ingurumen eraginaren adierazpena behin betiko onartuko dira.

Hauexek dira aldi honetako parte hartzeko programaren ekintzak:

- a) Ez dago aurreikusita mahaiek, taldeek edo batzordeek parte hartzerik.
- b) HAPOn dokumentu osoa lineako kanaletan eta webgunean argitaratuko da, kontsultatu ahal izateko eta deskargatzeko.
- c) Ez dago aurreikusita mahaiek, taldeek edo batzordeek parte hartzerik.

3.9. Testu bategina.

Ingurumen eraginari buruzko behin betiko txostena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso ondoren, izapidetzearen eta barneko lanaren azken urratsa Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailari helaraziko zaio, behin betiko onar dezan, eta, hala badagokio, plan orokorraren dokumentuaren gainean egingo ditu arestian esandako izapideen ziozko aldaketa egokiak, eta aldaketak jasotzen dituen testu bategina aurkeztuko da.

Hauexek dira 8. aldi honetako parte hartzeko programaren ekintzak:

- a) Ez dago aurreikusita mahaiek, taldeek edo batzordeek parte hartzerik.
 - b) HAPOn testu bateginaren dokumentu osoa lineako kanaletan eta webgunean argitaratuko da, kontsultatu ahal izateko eta deskargatzeko.
 - c) Ez dago aurreikusita mahaiek, taldeek edo batzordeek parte hartzerik.
- Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Azilun, 2021eko maiatzaren 3an

Alkatea

SUSANA DÍAZ DE ARCAYA CUBILLO